Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

**Rs-MU 011/2020**

# EBAZPENA / RESOLUCIÓN

## MUGIKORTASUNEKO ETA GARRAIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
## DIRECCIÓN GENERAL DE MOVILIDAD Y TRANSPORTE PÚBLICO

Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburuetako bat hiriarteko motorrik gabeko mugikortasuna eta ingurumenean eragin txikiena duten garraiobideak sustatzea da.

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene entre sus objetivos el promover la movilidad no motorizada interurbana y los medios de transporte que menor impacto tienen sobre el medio ambiente.

«Bizikletaz» aldizkaria Gipuzkoako Foru Aldundiak gipuzkoarren artean bizikleta sustatu eta zabaltzeko jarri duen tresnetako bat da. Horren bidez, Gipuzkoako Bizikletaren Estrategian (2014/2022) berariaz jasota dagoen bizikleta erabiltzeko promozioari dagokionez erakunde honek hartutako beharra eta konpromisoa ase nahi dira.

La revista «Bizikletaz» es una de las herramientas de las que se ha dotado la Diputación Foral de Gipuzkoa para la promoción y la difusión ciclista entre la población guipuzcoana. A través de la misma se quiere dar satisfacción a la necesidad y al compromiso adquirido por esta institución en relación a la pro-moción del uso de la bicicleta, que se encuentra expresamente recogido en la Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa 2014-2022.

Estrategia horrek, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak 2015eko martxoaren 24an onetsiak, ibilgailu horren erabilera gure lurraldean normalizatzeko 2014/2022 denboraldian jarraitu beharreko jarduera-politikak zehazten ditu. Bere helburuen artean, bizikleta-mugikortasunari lotutako balio- eta ohitura-aldaketaren gizarte-sustapena nabarmentzen da. Hori bizikletaren promozio-programa baten bidez gauzatzen da, 9. ardatz estrategikoan, eta horren parte da «Bizikletaz» aldizkaria argitaratzea.

Esta Estrategia, aprobada el 24 de marzo de 2015 por el Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa, define las políticas de actuación a seguir durante el periodo 2014-2022 para normalizar el uso de este vehículo en nuestro territorio. Entre sus objetivos destaca la promoción social de un cambio de valores y hábitos respecto a la movilidad ciclista, que se operativiza mediante un programa de promoción de la bicicleta, incluido en su Eje estratégico nº9, del cual forma parte la publicación de la revista «Bizikletaz».

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak ez du giza baliabide eta baliabide tekniko egokirik «Bizikletaz» aldizkaria idatzi, maketatu, inprimatu eta banatzearekin zerikusia duten lanak baliabide propioekin egiteko. Hori horrela, Bizikleta-Bideak Planifikatzeko eta Antolatzeko Teknikariak txostena igorri zuen 2019ko azaroaren 15ean, hura kontratatzea proposatuz.

El Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio carece de medios humanos y técnicos adecuados para llevar a cabo con recursos propios las labores relacionadas con la redacción, maquetación, impresión y distribución de la revista «Bizikletaz». Por ello, el 15 de noviembre de 2019, el Técnico de Planificación y Promoción de Vías Ciclistas emitió informe justificativo proponiendo su contratación.

Horretarako, kontratazio hori arautzen duten Administrazio Klausula Berezien eta Preskripzio Teknikoen Orriak idatzi dira, eta horiek gauzatzeko lizitazioaren oinarrizko

A tal efecto, se han redactado los correspondientes Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas que regulan dicha contratación y que

aurrekontua 56.161,60 eurokoa da (BEZa) eta bi urteko iraupena, beste urtebetez luza daitekeena.

Gastu honek traktu jarraituko eta etengabeko izaera du, 2007ko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, 54. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, adierazitako artikuluari jarraituz, ez da konpromisoen kreditu egoeran sartzen.

Horregatik, Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko zuzendari nagusiak

## EBAZTEN DU

**Lehenengo.-** Onartzea 2020 eta 2021. urteetan *Bizikletaz aldizkariaren idazketa, maketazio, inpresio eta banaketa zerbitzua* (erref.: 2020016CO110) kontratatzeko espedientea, eta hasiera ematea prozedura ireki simplifikatu bidezko lizitazioari. Aurrekontua: 28.080,00 euro (27.000,00 € gehi 1.080,00 € BEZ gisa, %4). Lanak egiteko bi urtekoa izango da. Halaber, erabakitzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeko 159.1 artikuluari jarraikiz, prozedura ireki erraztua erabiltzea lan horiek lizitatzeko.

**Bigarren.-** 28.080,00 euroko gastua baimentzea, 1 0610.110.227.01.02 kontu sailaren kargura.

**Hirugarren.-** Ebazpen honen lehenengo atalean adierazten den zerbitzuaren kontratazioa arautuko duten baldintza administratiboen agiria eta ezaugarri teknikoen agiriak onestea.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Interesatuek ebazpen honen aurka GORA JOTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokete Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO EPEAN. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

establecen para su ejecución un presupuesto base de licitación de 56.161,60 euros (I.V.A. excluido) y una duración de dos años prorrogables por otro año más.

Este gasto se considera de tracto sucesivo y naturaleza periódica, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 54 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, por lo que, en aplicación de la referida disposición, no se incluye en el estado de créditos de compromiso.

En su virtud, el director general de Movilidad y Transporte Público,

## RESUELVE

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación de los *servicios para la redacción, maquetación, impresión y distribución de la revista Bizikletaz* durante los años 2020 y 2021 (expte.: 2020016CO110), con un presupuesto de 28.080,00 euros (27.000,00 € más 1.080,00 € en concepto de IVA, 4%) y un plazo para su realización de dos años, prorrogables por otro año más; acordando, en atención al artículo 159.1 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, la utilización del procedimiento abierto simplificado para su licitación.

**Segundo.-** Autorizar un gasto de 28.080,00 euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0610.110.227.01.02.

**Tercero.-** Aprobar el correspondiente Pliego de Cláusulas Administrativas así como el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán la contratación del servicio expresado en el apartado primero de la presente resolución.

La presente resolución no pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer RECURSO DE ALZADA ante la diputada foral del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio en el plazo máximo de UN MES contado a partir del día siguiente al de su notificación, sin perjuicio de utilizar cualquier otro recurso que estimen pertinente.

Donostia, 2020ko otsailaren 26a / San Sebastián, 26 de febrero de 2020

MUGIKORTASUNEKO ETA GARRAIO PUBLIKOKO ZUZENDARI NAGUSIA /
EL DIRECTOR GENERAL DE MOVILIDAD Y TRANSPORTE PÚBLICO

Sin./ Fdo.: José Ignacio PREGO LARREINA